

horoskopoa

A R I E S
martxoak 21 - apirilak 20
Ez etsi. Kostatzen da, bai, baina beste ahalegin txiki bat egin eta ikusiko duzu.

T A U R U S
apirilak 21 - maiatzak 20
Lasai zaitez. Hain urduri jartzen zarenez, askotan ez dakizu zer esaten duzun ere.

G E M I N I
maiatzak 21 - ekainak 20
Atea zabaldu eta ibilaldi bat egin. Horrela arindu egingo zaizkizu buruhausteak.

C A N C E R
ekainak 21 - uztailak 20
Opor batzuk behar dituzu, eta merezi ere merezi dituzu. Hasi maleta prestatzen.

L E O
uztillak 21 - abuztuak 23
Zenbat negar egin behar da zu pozik izateko? Gogorra zara benetan.

V I R G O
abuztuak 24 - irailak 23
Zer amorru duzu zure barnean? Etsresaren ondorioa da hori. Oporrak hartu.

L I B R A
irailak 24 - urriak 23
Ateratzen dituzun oihu horiek alboan zirikatzen duzun horrek eragiten dizkizu.

S C O R P I U S
urriak 24 - azaroak 23
Kafesne eder bat gailera batzuekin hartu, eta askoz umore hobea izango duzu.

S A G I T T A R I U S
azaroak 24 - abenduak 23
Zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta nahasiago. Noraezean zabilta, ezta?

C A P R I C O R N U S
abenduak 24 - urtarrilak 20
Aurpegia behar bezala garbitzen ez baduzu, betaurrekoekin ere ez duzu hobeto ikusiko.

A Q U A R I U S
urtarrilak 21 - otsailak 18
Orain ereindako haziak fruitua emango du udan. Pazientzia pixka batekin...

P I S C I S
otsailak 19 - martxoak 20
Begirada horrekin norbait jan egin behar duzula dirudi. Gose, ala?

Uxue Agirre



Duela 60 urte
(Maiatzak 14, 1937)

Alemaniarren eskuhartze eza

Bizkargiren mendebaldean tropa leialek Heinkel 51 bat bota zuten. Hegazkinak eztanda egin aurretik, pilotuak salto egitea lortu zuen. Bala zuloz jositako paraxutak pilotuari bizitza salbatu zion arren, gudarien galdeketa zorrotzetik libratzea ezinezkoa egin zitzaion. Pilotuak Hans Joachim Wandel zuen izena eta maltzurkeria handiz jokatu zuen. Alemaniako Aire Indarren zerbitzura ez zegoela adierazi ostean, nortasun agiriak itzuli zizkiontenean, armada naziarekin zuen harremana frogatzen zuten datuak aldatu zituen. Euskaldunak, agiriak bueltatu aurretik fotokopiatu zituztenez gero, ohartu ziren Wandelen trikimailuaz.

telebista - irrátia

IÑAKI BIZKARRAK EGINDAKO BESTE HIRU LAN ERE ESKAINIKO DITU AURTEN EUSKAL KATEAK

'Burdinazko kemena' dokumental sorta udan emango dute ETB1etik


'Burdinazko kemena' dokumental sorta eskainiko du ETB1ek udan. Iñaki Bizkarrak egindako lana da. Hiriek industria gainbeherari aurre zelari egin dioten eta nola birsortzen ari diren azaltzen du lan horrek. Gainera, Bizkarrak berak egindako beste hiru dokumental ere emango ditu udan euskal kateak.

I. Basterretxea / Bilbo

ORDUBETEKO hiru dokumental eta dokumental sorta bat egin ditu Iñaki Bizkarrak azken hamabi hilabeteotan. Ordubeteko hiru dokumentalak honako hauek dira: Euskaldunak New Yorken, Kanadako museoa eta Guggenheim fundazioa. Lehenengo biak udan eskainiko dituzte, eta hirugarrena Bilboko Guggenheim museoa zabalduko den egunean, urrian. Hiru dokumental horiez gainera, *Burdinazko kemena* izeneko dokumental sorta ere emango du udan ETB1ek.

Industrializazioarekin estu lotuta dago *Burdinazko kemena*. Euskal Herriko eta munduko beste hainbat hiritako esperientziak alderatzen ditu. Iñaki Bizkarrak Ameriketako bost hiriren esperientzia hartu du aintzat dokumentala egiterakoan: Pittsburg, Baltimore, Seattle eta Los Angeles - Long Beach. Baina dokumental sorta honen izango du egunen batean jarraipena, Ameriketako esperientziez gainera, Europako zenbait hiritakoak ere kontatu nahi baititu ETBk.

Dokumental sortak errealtate sozio-ekonomikoaren azterketa egiten badu ere, «ez da aspergarria, alderantziz baizik», azpimarratu digu Pello Sarasola ETBko programazio zuzendariak. Horrez gainera, «Euskadi hiri bakar bat izango balitz bezala hartzen da aintzat; izan ere, ikuspegi horretatik askoz interesgarriagoa da munduko



Burdinazko kemena dokumental sortak Euskal Herriko eta munduko beste hiru batzuetako industrializazioaren bilakaera erakusten du.

beste hiri batzuekin konparaketa egitea.

Sarasolaren ostean, Bizkarrak hartu zuen hitza, eta, hasteko, «industrializazioaren gainbeheratik irteteko burdinazko kemena behar da, ezta?», esan zuen. «Burdinazko kemena dokumenta-

lean azaltzen diren hiriak Euskadiren antzekoak dira; Bilbok Pittsburgu antza duela esaten da adibidez, baina Bilbo askoz txikiagoa da, noski». Bizkarrak jarraitu zuenez, «Pittsburgu mun-

duko burdinari gehiena egiten zen, eta gaur egun ia ez da egiten; lehen hamazazpi labe garai zeuden eta haietatik bakarra geratzen da egun, 150.000 lanpostu galdu zituen orain dela hamarren bat urte, eta lehen baino 400.000 biztanle gutxiago ditu egun...» Aldaketa handiak dira horiek, industrializazioaren gainbeheraren ondorioak. «Baina guk ez dugu ikuspegi ezkorretik aztertu; egoera horri aurre nola egin eta hiria birsortzeko zein bide jorratu duten azaltzea da gure nahia. Izan ere, lehen labe garaiak zeuden tokietan egun zer ipini asmatzea da erronka nagusia».

Iñaki Bizkarra, «erreportari oso-oso»

Iñaki Bizkarra gasteiztarra orain dela bost urtetik bizi da Estatu Batuetan. Ertameriketara eta Iparrameriketara egin dituen 45 dokumental daude dagoneko ETBko artxiboan. Bizkarrak egiten duen lana berba ederekin azpimarratu zuen Sarasolak. «Nik», esan zuen ETBko programazio zuzendariak, «hainbat dokumental egile ezagutu ditut han eta hemen, baina erreportari osoaz pentsatzerakoan, Iñaki Bizkarra etortzen zait burura. Erreportari osoa esan dut, hainbat eratako gaiak aztertu dituelako dokumentaletan; hala nola gai etnikoak, politikoak, historikoak, ekologikoak eta turistikoak; eta, gainera, bera delako dokumentalen sortzailea, zuzendaria, aurkezlea, gidogilea, errealizatzailea...» X

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

Gu bezalako espioiak

tenen esku jartzen jarraitzen badute. Mesedeak eta faboreak hori bezalako programak edonori opari ematearen truke betetzen dira. Horrela espiedientea eginda uzten dute, etxeko lagunak poltsikoak gero eta beteagoak egon daitezten. Biluzik gaudenok, berriz, ezin dugu eskuak inongo poltsikotan sartu, ezta? Desarrazoi asko dago ETBn. Aipatu dudana saio horretan, adibidez, zentzugabekeriak ez ziren kareta izenarekin bukatu. Izan ere, errotoik moztu zuten programa berriz ere, lankideen izenak agertu baino lehen. Bare ederrekoak ditugu ETBkoak, maiteok! Agian lotsa emango zien casting-en kredituak erakustea, batek daki. Huts egiten duzunean ezin duzu agerian utzi ez duzula konpondu. Baina bost axola!

Aste honetako albiste onena atzoko egunkarian irakurri nuen. Pilota partidua, finala, Euskal Herriaren ETBn ikusi zuten gehienek. Noski! Josetxo Lizartzaren estiloa gero eta enfatikoagoa bilakatzen ari da. Ia betekada hartzeko modukoa. Xabier Euzkitzerenak, berriz, doitasun zehatza eta neurritasunaren kontrol denotatu du ezaugarritzat. Badaezpada bietan ikusi nuen norgehiagoka. Tanto bakoitza kate batean. Eta iaz bezala Arretxeren alde jokatu nuen nire soldata. Aurten irabazi dudanez, agian hilabeteko oporrak merezimendu handiagoaz hartuko ditut. Aupa, Fernando. Eta eskerrik asko irabazte-gatik.

Ines Inxausti